

# ¡DAMUBA!

¡Zenbat gazte joaten da  
urrutiyetara,  
sort-erriya utzi ta  
Ameriketara;  
ango, ezagututzeri  
ez dan lurretara,  
*choro choro jostallu*  
zer nai aldetara,  
aberastasun pillak  
diran lekutara!  
¡Bañan irichitzian  
lur berriyetara,  
malkoak sorturikan  
begi biyetara,  
konturatutzen dira  
arrazoyetara!

¡O, zenbat pentsamentu  
beren burutara,  
¡o, zenbat pena samin  
bai biyotzetara  
esanaz: Gu nork jarri  
gaitu onetara,  
zeñek astindu gaitu  
ametz obetara!,  
¡a!, ez bagiñan etorri  
gu lur abetara,  
ametzetako leku  
urrezkoetara!

¡¡Zeiñ liteken jiratu  
gure menditara,  
Euskal-erriko lur on  
estitzubetara;

parerikan gabeko  
baserriyetara,  
*churi, chukun ta lente*  
daudezenetara,  
ibai, errolza chur chur  
ain garbiyetara,  
arboldegi sendoak  
duben onetara,  
soro baso belardi  
ta zelayetara  
gu sortu giñan kabi  
gozo ayetara!!

.....  
¡Albaliteke jira  
egatuaz ara  
gaur bertan jiratuko  
giñake bertara !

.....  
¡Zenbat choro oraindik  
badabill arrua,  
chori eta ametzez  
beterik burua;  
Euskal erriya utzita  
kanpora dijua,  
*utztez an kalietaan*  
dalako dirua !

.....  
¡Obe dezute utzi  
orlako asmua,  
ez dezazuten izan  
betiko ... ¡DAMUBA!

JOSÉ ARTOLA.